

XEDAPEN OROKORRAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3692

AGINDUA, 2021eko maiatzaren 24koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzen dituena.

Aintzat hartuz Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituen azaroaren 21eko 232/2000 Dekretuaren 30., 31., 32. eta 33. artikuluetan xedatutakoa; eta Dokumentuak Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordeak 2021eko urtarrilaren 13ko bileran onartutako dokumentuak ebaluatzeko taulen proposamenak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agindu honen eranskinean azaltzen diren dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzea.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 24a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

ERANSKINA

1.– Arartekoaren dokumentazioa.

Seriearen kodea: ARAR001.

Serie dokumentala: Kexak eta kontsultak izapidetzea.

Ebazpena: Espedienteei amaiera ematen dieten ebazpenak eta dokumentuak gordetzea eta gainerako dokumentazioa ezabatzea; paperezko espedienteei, mistoei eta elektronikoei aplikatuko zaie.

Epea: hamar urte.

Erakundea: Ararteko.